

LEHEN ZIRKULARRA

(2015eko urriaren 26an)

2007an, Zaragozan, historia garaikidearen ikertzaile gazteen I. topaketa gauzatu zen. Hau, ikertzaile berriei zuzendutako bilerak egiten ekimen aitzindaria izan zen. Hamarkada bat eta bost topaketa egin ondoren, Aragoiko hiriburuan elkartuko gara berriz, bi urtez behingo kongresu hauen ohitura jarraituz, **2017ko irailaren 6, 7 eta 8an Ikertzaile Gazteen Nazioarteko VI. Topaketa** burutzeko. Honek aurrekoen herentzia jasotzen du, bilera eta hausnarketarako tokia eta ikerketa gaien bateratze-lana egiteko tokia eskainiz. Ekimenak, eztabaida horizontalak eta bere lan historiografikoa garatzen ari diren gazte garaikideen talde-lana lehenesten du.

LEHENENGO ZIRKULAR honetan tailer-mahai eta Scriptoria jardueretarako proposamenak egiteko deialdia egin nahi dugu. Proposamenak egin nahi dituztenek, blogean dagoen inprimakia bete eta 2016ko martxoaren 1a baino lehen, e-mailez ondoko helbidera bidali beharko dute joveneshistoria2017@gmail.com. Parte-hartzaileei dagokienez, ez da ostatua edota garraiorako laguntza egongo denik aurreikusten. Ondorengo lerroetan aipatutako eztabaidarako eta lanerako bi jardueren filosofia eta araudia azalduko dugu.

Tailer-mahaiak: topaketa honen helburuetako bat, historiako gaien zatiketa saihestea eta elkarrizketa sustatzea da. Horregatik, antolakuntza taldeak tailer kopurua finkatzea erabaki du eta 15 eta 20 artean izango dira; halaber, gai oso zehatzen proposamenak baztertuko ditugu eta zeharkakotasuna baloratuko dugu; mahai bakoitzean gero eztabaidara eramango diren gehienez 15 komunikazio egongo dira.

Proposamenak jaso eta BIGARREN ZIRKULARA atera arte (2016ko maiatza), proposatu dutenen eta antolakuntza taldearen arteko negoziazio fasea egingo da. Honetan mahaiak fusionatzeko (ez batzeko) aukera aztertuko da, antzekoak izan daitezkeen gaiak eta interes orokorreko eztabaida batean bildu daitezkeenak. Tailer-mahaietan komunikatzaile bakoitzaren testuaren inguruko parte-hartze pertsonalak baztertzea gomendatzen du antolakuntza taldeak; horren ordez, koordinatzaileek aurretik prestatutako txosten baten bidez sustatuko dute eztabaida. Aipatutako txostenak mahai bakoitzaren kohesioa erraztuko du (batez ere fusionatutako mahaienak), eztabaidaren ardatzak zentratuko ditu eta ohiko aurkezpen erronda ez da beharrezkoa izango.

Scriptoria: aurreko topaketetan izandako esperientzietan oinarriturik, zeinetan eztabaida eta ideiak ez ziren tailer-mahaietan ateratzen, baizik eta ondoren, Scriptorien ideia sortu zen; Kongresu batean parte-hartzea *paper* bat aurkezteaz harago doalako. Beraz, zer dira Scriptoriak? Topaketa baino lehen, bitartean eta gero egiten den lan proiektu kolektibo bat da. Honen helburua, Historiaren dibulgaziozko, ikerketako edota izaera akademikoa duten proiektuak martxan jarri edo garatu nahi dituzten ikertzaileak kontaktuan jartzea da. Prozesu bizia, irekia eta berritzailea da, zeinean tradiziozko tailer-mahaietatik urrundu daitekeen edozein ideia jasotzen da.

Beraz, Scriptoria bat izan daiteke, adibidez:

- Monografiko, artikulua edo liburu bat bezalako lan kolektiboa aurrera atera.
- Aldizkako argitalpen bat martxan jarri.
- Ahozko memoriako proiektu bat egin.
- Erakusketa bat antolatu.
- Ibilbide historiko bat asmatu.
- Dokumentalak bezalako dibulgaziozko proiektuak landu.
- Metodologia historiografika baten inguruko eztabaida antolatu.
- Historiaren idazketari buruzko tailerra.

Proposamenak goian aipatutako korreora bidaliko dira, muga 8 Scriptoriakoa izanik. Scriptoria baten proposamena jaso ondoren, Topaketaren web orrian egingo da publiko, interesa duen edozein pertsonak honetan parte hartu ahal izateko. Jasotzeko epeari dagokionez, taldeok osatu arte behar dena atzeratuko da.

Epea itxi ondoren, antolakuntza taldeak ahal bezain laster eta bigarren zirkularra bidali baino lehen, tailer-mahaien osaketa eta Scriptorien konfigurazioa zein den adieraziko du. Aipatutako bidalketen ondoren, jaso izanaren adierazpenarekin baieztatuko dira.

Zuen arreta aldeztu aurretik eskertuz, agur bero bat

Antolatzaile taldea